

Eneko Goia Donostiako alkateak Sea'ties Declaration adierazpenaren sinadurarekin bat egin du Bresten egindako One Ocean Summit nazioarteko goi-bileran

Frantziako Brest hirian otsailaren 9tik 11ra egin den ozeanoen babesari buruzko One Ocean Summit nazioarteko lehen goi-bilera Emmanuel Macron presidenteak deitutako bilkurarekin amaitu da. Estatuburu eta gobernuburuak, erakunde multilateraletako buruzagiak, enpresetako ordezkariak eta gizarte zibileko arduradun politikoak bildu dira bertan, ozeanoekiko dugun ardura partekatuaurrean, gobernu nazionaleri eta nazioarteari ekintzetara igaro daitezzen eskatzeko.

Nazio Batuen laguntzarekin eta Europar Batasuneko Kontseiluaren Frantziako Lehendakartzaren testuinguruan antolatutako ekitaldiak mundu osoko 400 aktore baino gehiago bildu ditu ozeanoen kontserbazioaren eta itsas sektorearen eraldaketaren inguruan eztabaidatzeko.

Ocean & Climate Platform goi-bileran landutako gaien artean, Frantziako Gobernuak eta Brest hiriak, Bloomberg Philanthropiesekin elkarlanean, itsasoaren mailaren igoeraren aurrean kostaldeko hiriek dituzten erronkak argitzeko gakoak eskaini zituzten *Hiriak eta beren lurraldeak, itsasoaren mailaren igoeraren aurrean* foroaren baitan. Bertan aurkeztu zuten, hain zuzen, Sea'ties Declaration adierazpena.

Halaber, agerian geratu zen ozeanoa ingurumen-orekaren eta klimaren erregulatzailer nagusietako bat dela, baliabide ugari hornitzen dituela, merkataritza bideratzen duela eta herrialdeen eta komunitateen arteko funtsezko lotura ere badela. Eta hala ere, klima-aldaketaren ondorioek, kutsadurak edota itsas-baliabideen gehiegizko ustiapenak arriskuan jartzen dute.

Horregatik, auzi honek berebiziko garrantzia du kostaldeko populazioentzat. Itsasoaren mailaren gorakadaren ondorioak oso argiak dira mundu osoko kostaldeetan, hala nola, lurren urperatzea, hondartzen eta itsaslabarren higadura eta lurpeko uren gazitzea eragiten dituelako. Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Adituen Taldearen txostenaren arabera, itsas mailaren igoeraren batez besteko tasa urteko 2,1 mm-koa zen 1993-2002 aldian, eta azken hamarkadan 4,4 mm-ra igo da.

Etorkizunean, fenomeno horiek gero eta eragin handiagoa izango dute kostaldeko hiri eta lurraldeetan, eremu horiek populazio globalak erakartzen jarraitzen dutelako. Hala, aurreikuspenen arabera, 2050erako mila milioi pertsona baino gehiago biziko dira kostaldean, eta beraz, mehatxu horien eraginpean egongo dira. Ildo beretik, premiazkoa da arintze- eta egokitze-estrategia eraginkorrak, iraunkorrak eta bidezkoak ezartzea populazio eta ekosistemak babesteko.

Sea'ties Declaration

Bresteko goi-bileran parte hartu duten ordezkariak Sea'ties Declaration adierazpena aurkeztu dute, Ocean & Climate Platformek idatzi eta maila zientifiko altuko adituek eta hirietako ordezkari hautetsiek berrikusitako dokumentua. Bertan, Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Panelaren (IPCC) ondorio nagusiak jasotzen dira, eta 30 bat hirik sinatu dute dagoeneko, New Orleans, Vancouver, Bangkok, Lagos eta Salvador barne.

Adierazpena itsasoaren mailaren igoera arintzeko eta egokitzeko helburua duen

nazioarteko mobilizazioaren lehen urratsa da. Hala, ekintzarako deia babestuta, aldaketen lehen lekuko diren alkate eta ordezkari politikoek erronka beren gain hartzeko eta trantsizio-prozesua babesteko eskatu nahi diote nazioarteko komunitateari, lehentasunezko lau ekintza-lerro oinarri hartuta: zientzia eta behaketa-sistemak mobilizatzea, gizarte-arazoak egokitzapen-planen barruan integratzea, egokitzapen eta irtenbide hibridoak sustatzea, eta finantzaketa publikoa eta inbertsio pribatuak handitzea, autonomia-erkidegoetara egokitzeko.

Nazio Batuek ekainaren 27tik uztailaren 1era Lisboan egingo duten ozeanoari buruzko topaketari begira, kostaldeko herrien ahotsa entzunarazteko eta nazioarteko konpromisoak prestatzeko aukera da adierazpena.

Informazio gehiago: <http://oneoceansummit.fr/>